

## **Goi betortza**

Goi eta behe betortzak elkarren antzekoak dira eta beren eginbehar gehienak elkarrekin betetzen dituzte. Aho barruko hortzik luzeenak dira. Izan ere, betortzen koroak goiko ebakortzenak bezain handiak dira altueran, eta erroak beste edozein hortzenak baino luzeagoak izaten dira. Sustraitze indartsu honi eta koroak mihi-ezpain ardatzean duen zabalera handiari esker, betortzak hortzik finko eta egonkorrenetakoak dira.

### Batez besteko neurriak (ezpain-aldean neurtuta):

Altuera osoa: 27 mm

Koroaren altuera: 10 mm

Erroen luzera: 17 mm

Koroaren zabalera hurbil-urrun ardatzean: 8 mm

Koroaren zabalera mihi-ezpain ardatzean: 7,5 mm

KEI: 1,7

### Ezpain-aldeko ikuspegia

Koroaren ezpain-aurpegia ganbila da, batez ere iduneko herenean, baina ebakortzetan baino apur bat ebakitze-alderago izaten da ganbilen. Idun-aldetik ebakitze-alderaino **ezpain-gangarra** luzatzen da, goitik behera. Gangar honen alde hurbil eta urrunean sakonune edo ildo leun bana aurkitzen da, idun-aldetik ebakitze-alderaino eta norabide berberaz biak. Sakonune hauek bereizi egiten omen dituzte elkarrengandik ezpain-aldeko hiru hazkuntza-lobuluak. Lobulu hauetarik erdikoa litzateke handien haziko litzatekeena eta ezpain-gangarra sortuko lukeena. Laugarren hazkuntza-lobulutik, mihi-aldekoetik alegia, zingulua sortuko litzateke. Koroaren silueta ganbila da alde hurbilean, eta **ukigune hurbila** erdiko herenak ebakitze-herenarekin bat egiten duen eremuan kokatuta dago. Alde urrunean, ostera, koroaren silueta ahurra izaten da idun-lerrotik **ukigune urrunera** bitartean, hau da, erdiko herenaren erdigunera bitartean.

**Ebakitze-gailur** bakar bat aurkitzen da eta bertatik **ebakitze-gangar** bana luzatzen da atxikitze-alde bakoitzera. Ebakitze-gangar hurbila laburragoa da urruna baino (2/5 vs 3/5 inguru hurrenez-hurren).

**Idun-lerroa** ganbila da eta apur bat erro-alderantz uztaitzen da. Erroa koroa baino estuagoa da ezpain-aldetik ikusita. Erroaren erpina zorrotza izaten da, eta gehienetan alde urrunera okertua.

### Mihi-aldeko ikuspegia

Koroa eta erroa estuagoak izaten dira mihi-aldean ezpain-aldean baino. Koroaren silueta ezpain-aldekoaren antzekoa bada ere, aurpegia oso bestelakoa izaten da, ganbil agertzen baita ebakitze-ertzaren aldamenean, ahur erdiko herenean eta oso ganbil iduneko herenean.

**Idun-lerroa** askoz artezagoa da ezpain-aldean baino. **Zingulua** handia eta nabarmena da, eta batzuetan gailur bat bezain zorrotza izan daiteke. Aldaki hauetan zinguluaren azpian gangar nabarmenak aurki daitezke, eta baita bazter-gangar oso mardulak ere. Beste zenbaitetan mihi-aldea leuna izaten da eta bakan agertzen da sakonune edo irtenune aipagarririk.

Zingulutik ebakitze-gailur bertaraino abiatzen den **mihi-gangarra** sarri aurki daiteke, albo bakoitzean sakonune bana duela. Sakonune hauei **betortzaren mihi-ildoak** esaten zaie, eta sakonagoak izatekotan, berriz, **mihi-hobiak**. Erro-aldea ezpain-aldeetik bezala ageri da, baina doi bat estuagoa izan ohi da. Bere aurpegian sarritan ildo edo sakonune bi ikus daitezke erroa idunetik erpineraino goitik behera zeharkatzen.

### Atxikitze-aldeetako ikuspegia

Koroaren siluetak ebakortzen antza badu ere, askoz zabalagoa da mihi-ezpain ardatzean. Ezpain-aldeko silueta ganbila da, eta mihi-aldekoa ostera ganbila da **zinguluaren** eremuan, laua erdiko herenean (**bazter-gangarren** silueta) eta ganbila **ebakitze-gangarraren** aldamenean.

Ebakortzetan bezala, **idun-lerroa** oso uztaiturik agertzen da ebakitze-alderantz. Erro-aldean sakonune zabal bat agertzen da. Atxikitze-alde urruneko ikuspegia alde hurbilekoaren oso antzekoa izan arren, (i) **idun-lerroa** ez da alde hurbilekoa bezain beste uztaitzen, eta (ii) **bazter-gangarra** alde hurbilekoa baino ahurragoa izan ohi da.

### Ebakitze-aldeko ikuspegia

Koroa gehienetan zabalagoa izaten da mihi-ezpain ardatzean hurbil-urrun ardatzean baino, baina zenbaitetan berdintsuak ere izan daitezke neurri biak. Mihi-aldeko herena estuago ageri da ezpain-aldeko herena baino. Mihi-aldearen zabaleraren heren bat **zinguluak** osatzen du. **Ebakitze-gailurraren burua** erdigunean barik apur bat ezpain-aldean eta pixka bat alde hurbilean dago kokatuta.

### Erro-aldea eta muin-aldea

Goi betortza da hortzagin guztietarik zabalena mihi-ezpain ardatzean. Koroa-barrunbearen zabalera ere hortz enparatuena baino handiagoa izaten da, eta zabalago mihi-

ezpain ardatzean hurbil-urrun ardatzean baino. Erroa bakarra izaten da, inoiz bitan banatutakoren bat aurki badaiteke ere. Ebakitze-gailurra nabarmena denean, **erdiko muin-adarra** ere handia izaten da. **Muin-kanala** bakarra da eta gutxinaka estu daiteke erpinera gerturatu ahala, edo baita bat batean ere. Erroak eta muin-kanalak itxura biribila izan dezakete, edo baita arrautza edo hiruki itxura ere.